

2024KO EKINTZEN MEMORIA

URTARRILA

- 5ean Basquetour-eko arduradunekin bildu gara Euskadiko Senderismoko Lehen Nazioarteko Foroa izango dena prestatzeko helburuarekin; lehen aldiz antolatuko den Foro honek Zegaman izango du bere kokalekua apirilean; lehen bilerekin hasi gara antolaketa, programa, hizlariak eta eduki desberdinak zehaztu asmoz.
- 9an Txileko Valparaiso lurraldean dagoen Viña del Mar hiri turistikoarekin bildu gara bertako arduradun turistikoekin; Viña del Mar-eko turismo agentzia eta Goitur-en arteko lankidetzeta hitzarmen bat sinatzea adostu dugu hainbat gai jorrazteko helburuarekin: gobernantza, lehiakortasuna eta produktu turistikoen sorrerari dagozkien atalak batez ere.
- 11an Goierriko sagardotegien denboraldi berria aurkezteko prentsaurrekoa ospatu da Legorretan: ekitaldiaren buru eta gonbidatu gisa, Paco Nadal kazetari ezaguna izan da gure artean.
- 16an Foru Aldundiko Turismo Sailarekin bildu gara, Foru Aldundia eta Goitur-en arteko aurtengo hitzarmena adostu dugularik, Kataluniako azoka turistikoari dagokion hitzarmena.
- 17an Goierriko Industria Turistikoaren Egitasmo Estrategikoa eta Marketin Plana 2030 aurkeztu dugu prentsaurreko baten bidez; bertan parte hartu dute, Goierriko Alkateekin batera, Azahara Dominguez, Foru Aldundiko Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketako Diputatuak, eta Javier Hurtado, Eusko Jaurlaritzako Turismoa, Merkataritza eta Kontsumo Sailburuak.
- 18an Noemi Lekube, nazioarteko turistak ekartzen dituen gida turistikoa gonbidatu dugu Goierriira eskualdeko errekurtsio eta produktu turistiko berriak ezagutzeko helburuarekin.

- 28. urtez, Eusko Jaurlaritzako standaren barruan joan gara Madrilgo FITUR azokara 24tik 28ra. Azokak iraun duen bost egun hauetan guregana heldu direnak Goierriko mapa eta gida desberdinekin topatu dira; era berean, egun hauetan zehar, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiko agintari desberdinekin elkartzeko aukera ere izan dugu, eta Turismo Ministerioko ordezkari eta arduradun desberdinekin bildu gara Goierriko lehiakortasuna eta promozioa aztertzeko asmoz.
- 27an Basque Luxury aurtengo aldizkariaren aurkezpenean izan gara: Goierriko natura eta kirolari buruzko erreportaje bat argitaratu da bertan; online formatean ere badagoen aldizkari hau Euskal Herria, Kantabria, Errioxa eta Frantziako hotel eta zerbitzu turistikorik garrantzitsuenetan egongo da eskuragai (jatetxe, denda, museo, etb.) eta 901.000 irakurle ditu denera. Aldizkaria munduko 120 herrialdeetako 5700 hotel garrantzitsu baino gehiagotan dago kontsultarako (The Ritz, Carlton, Park Hyatt, Marriott, Four Seasons, Mandarin, Intercontinental, Relais&Chateaux, Bulgari Hotels, Hilton eta Le Meridien), Bilbo, Estatua, Europa eta munduko hainbat aireportuetan eta hegazkin konpainietan (Iberia, British Airways, Air Canada, Air Astana, Jet Blue, Austrian Airlines, Eurowings, Israel Airlines, Aerolíneas Argentinas, Qantas, Turkish Airlines, Lufthansa, Swiss, Alitalia,...), RENFE, Eurostar, Via Rail Canada eta SBB (Suitza) trenak eta kruzeroetan ere (Silverseas, MSC Cruises, Carnival, Viking,...)
- 30ean Zegama-Aizkorri maratoiko arduradunekin elkartu gara aurtengo edizioaren prestaketak aztertzeko helburuarekin.
- 30ean baita ere Sakana, Tolosaldea eta Baigorriko arduradunekin bildu gara Trail Estazioaren proiektua garatzen jarraitzeko.
- Hilabete hasieran zehar komunikabide desberdinekin harremanetan jarri gara eta Goitur-eko aurtengo egitasmoaren berri eman diegu.
- Urtarrilean hasi eta urte bukaerara arte, Nekatur, Euskadiko nekazalturismo eta landetxeen webgunean, promoziorako Goierriko banner bat txertatu dugu.
- Urtarrila hasieran Goierriko bi erreportaje zabal argitaratu dira Viajar ("La comarca española que parece haberse detenido en el tiempo") eta Condé Nast Traveler aldizkarietan ("De escapada al Goierri del País Vasco: una guía para sumergirte en su historia y sus campos").
- Urte hasiera honetan ere Irukom enpresarekin adosturiko ekintza plana martxan jarri dugu: Goitur-eko sare sozialak dinamizatuko dira urte guztirako egin den egutegiaren bitartez.

OTSAILA

- 1ean Gipuzkoako Foru Aldundiak marka turistiko berria aurkezteko antolatu duen Albaolako ekitaldian parte hartu dugu.
- 1ean baita ere apirilean ospatuko den Euskadiko Senderismoko I Foroaren prestaketa lanetan jarraitzeko bilera bat antolatu dugu antolakuntzako kide guztiekin; bilera gehiago ere egin ditugu otsailean zehar.
- 6an Euskadi Confidential programan Goierriko esperientzia gastronomikoak sartzeari lortu dugu behingoz: aspaldiko eskaera zen honako hau, eta programa honetan ere, Goierri eskualdea agertuko da.
- 8an Gipuzkoako Foru Aldundiak Irungo Ficoban antolaturiko turismoko jardunaldi batean parte hartu dugu.
- 10etik 11ra Euskadiko The Grand Tour egitasmoaren barruan dagoen Goierriko etaparen produktu eta errekurtsio turistikoak grabatu dituzte promozio bideo baterako.
- 15ean eskualdeko turismo bulegoen mahaia bildu da Goierriko marka turistiko desberdinen egoera aztertu eta turismo bulegoek etorkizunean landu beharko dituzten funtzio berriak identifikatu asmoz.
- 16an Aroa Jilete, Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Ostalaritza Zuzendaria etorri da bisitan Goierriara; Goitur eta Eusko Jaurlaritzaren arteko aurtengo elkarlanak aztertu ditugu.
- 19an Frantziako Petit Futé gida turistikorako Goierriko edukiak moldatu ditugu edizio berrirako.
- 21ean Gipuzkoako Foru Aldundiak antolaturiko Gipuzkoako Turismo Gastronomiko Jasangarriaren topaketan parte hartu dugu.
- 26an, Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko Euskadi Gastronomika egitasmoa galan parte hartu dugu.
- 27an Sakana, Tolosaldea eta Baigorriko arduradunekin bildu gara berriro ere Trail Estazioaren proiektua garatzen jarraitzeko.

- 28an Basquetour-eko aurtengo plangintza aurkezteko antolatu den ekitaldian parte hartu dugu.
- Hilabeteen zehar herri desberdinetako komizioetan parte hartu dugu beraien eskaerari erantzunez.
- Otsailean zehar ere Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko arduradun teknikoekin bildu gara aurtengo dirulaguntzen dekretuak aztertu eta Goierriko osagarriak izango diren ekintza promozionalak ezagutzeko asmoarekin.
- Otsailean ere Goierriko erreportaje bana argitaratu dira Clara aldizkarian eta El País egunkarian; azken honetan, Paco Nadal kazetaria Goierriko txotx irekierara gonbidatu ondoren, sagardoa eta eskualdeko sagardotegiei buruzko azalpenak eman ditu.

MARTXOA

- 1ean SEGITTUR-en ekimenez sortu den Estatuko kirol turismoko mahaiko bilera parte hartu dugu.
- 1ean baita ere Gipuzkoako Hub-ak antolaturiko adimen artifizialari buruzko formazioan izan gara.
- 5ean Goimen-ekin elkartu gara eta lehen sektoreko ekoizleen mapa berriaren garapena aztertu dugu.
- 5etik 7ra Berlin-go ITB azokan parte hartu dugu gure errezeptiboen bitartez, eta hauen bidez aurkeztu ditugu eskualdeko pakete turistiko desberdinak.
- 7an, Donostia Turismok antolatuta, bilera profesionalak eta ekitaldiak indartzeko estrategia lantzeko ikastaroan parte hartu dugu; ikastaro honetan ere, ekitaldi hauen inpaktua neurtzeko tresnak aipatu dira.
- 13an natura turismoaren inguruan antolaturiko Aktibatu jardunaldian parte hartu dugu.
- 13an ere Foru Aldundiak antolaturiko enplegua eta turismoari buruzko jardunaldian izan gara.

- 18an, Basquetour-eko lehiakortasun arloak antolaturiko bilera batean parte hartu dugu: bertan, aurtengo programa desberdinak aurkeztu dizkigute.
- 19an eskualdeko Turismo Mahaia elkartu da, Aste Santua baino lehen izango ditugun promozio ekintzak partekatzeko asmoz eta Aste Santua eta udarari begira landuko ditugun estrategia desberdinak zehaztearren.
- 22an Basquetour-eko produktu turistikoen arloak antolaturiko bilera batean parte hartu dugu ekoturismoa, senderismoa eta zikloturismoa bezalako gaien gaur egungo garapena jorratzeko helburuarekin.
- 25ean Habla Radio irratiak Lazkaomendiko Iztueta baserritik egin du emisioa zuzenean goiz eta arratsalde; Goierri eskualdea aurkezteko aukera izan dugu bertan.
- 27an Basque Culinary Center-ek aurrera daraman turismo gastronomikoko masterrean ikastaro bat eman dugu Goierriko produktu gastronomikoak aurkeztuz eta hauen kudeaketa turistikoa azalduz; bide batez, eskualdeko hainbat errekurtso gastronomiko ere bisitatu ditugu.
- Aste Santu atarian, hainbat komunikabideekin elkarrizketak egin ditugu Aste Santu aurreko balorazioa eginez eta Goierriin antolatu diren ekintza eta agenda berezien berri emanez.
- 28tik 31ra Bilboko BasqueFEST azokan parte hartu dugu zortzigarren aldiz: lau egunetan zehar Goierriko informazio turistikoa banatu dugu Areatzako karpan eta gure produktu gastronomikoen dastaketak ere egin ditugu (gazta eta sagardoa). Beste behin ere erabat arrakastatsua izan da aurtengo edizio hau.
- Martxoan zehar Idiazabalgo Gazta Azoka prestatzeko antolatu diren komisio desberdinetan parte hartu dugu.
- Martxoa bukaeran ere prest geratu da inprentarako lehen sektoreko ekoizleak batzen dituen mapa gastronomiko berria.

APIRILA

- 1ean Paco Nadal-ek grabaturiko Gr 283 Idiazabal Gaztaren Ibilbideko bideoa publikatu da, baita Nerea Garmendiarekin grabaturiko bideoa ere.
- 3an, Ordiziako Artzai eguna dala eta, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko agintariekin egoteko aukera baliatu dugu Goierriko proiektu turistikoaren bilakaeraren inguruan hitz egiteko.
- 4ean Frantziako Petit Futé bidai liburuko Martin Fouquet idazlea etorri da Goierri: edizio berri bat argitaratu behar dute eta Goierriko produktu turistiko berriak sartzeko helburuarekin, eskualdeko hainbat leku bisitatu ditu.
- 8tik eta maiatza amaitu arte Goierri promozionatu dugu online formatoan Expressive enpresa kontratatu ondoren; kanpaina digitala jarri dugu martxan hiru estrategia erabiliz: sare sozialak, Youtube eta Programatika; Valentziar Erkidegoa, Madril, Lleida, Girona eta Bartzelona lurraldeetako 35 eta 55 urte arteko pertsonengana heldu da Goierriko informazioa formatu desberdinen bidez.
- 10ean Ordizia Meeting lantaldeko arduradunarekin bildu gara elkarren arteko lankidetzaz aztertzeke helburuarekin.
- 12an ACV enpresarekin bildu gara Goierriko turismoaren webgune berriari buruzko hausnarketa egiteko.
- 15ean Gipuzkoako Turismo Mahaia bildu da eta ondorengo gai hauek jorratu ditugu: adimen turistikorako sistema, dirulaguntzak, turismo agenda, turismo gida berria, turismoko egitasmo estrategiko berria, eskualdetako promozio kanpainak eta HUB-aren egoera.
- 17an Guatemalako Jacaltenango eskualdetik eta Guatemala hiriburutik etorri diren eragile tekniko eta politikoen aurrean Goitur erakundea aurkeztu dugu eta Goierriko turismoaren aurkezpena egin diegu.
- 20ean, Goitur-ek babestutako UCI mailako junior txirrindulari klasika ospatu da Goierri bigarren aldiz, Gipuzkoa Klasika deiturikoa; Estatu Batuak eta Europako 18 talde desberdin etorri dira Estatukoez aparte, eta streaming bidez ikusi ahal izan da zuzenean. Aurretik, proba hau aurkezteko Ormaiztegin egin den prentsurrekoan parte hartu dugu 17 asteazkenean.

- 20ean baita ere, Lyon Capitale Escapades aldizkariko kazetari bat etorri da Goierriera gure ingurune naturalak ezagutzera; Bilbo eta Lyon-en arteko hegaldi zuzen bat abian jarri da eta Euskadi promozionatzeko erreportaje bat egingo da.
- 23tik 25era Tenerifen izan gara SEGITTUR-ek antolaturiko HTA (Helmuga Turistiko Adimenduna) proiektuaren barruan, Estatu guztitik etorri diren helmugen topaketa batean.
- 25ean Euskadiko Senderismoko I Jardunaldia ospatu da Zegaman Goitur eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlan bati esker; hizlari desberdinek hartu dute parte jardunaldian eta sektorearentzako tailer desberdinak antolatu dira senderismoaren atal desberdinak aztertuz. Ondorengo 4 aste bukaeratako zehar txango desberdinak antolatu ditugu eskualdeko naturgunetan oinarrituriko eremu desberdinetan: Aralar eta Aizkorri-Aratz Parke Naturalak, Mutiloa-Ormaiztegi Bide Berdea, Zeraingo meatze gunea eta Gr 283 Idiazabal Gaztaren Ibilbideko bi etapa. Jardunaldi hau dela eta, elkarrizketa desberdinak egin ditugu komunikabide desberdinetan.
- Apirila bukaeran, Arabako San Prudentzio eta maiatzak lehenengoko jaia baino lehen, Gasteiz Hoy online aldizkariaren eskutik, Goierriko erreportajeak sartu ditugu eta maiatzeko Idiazabalgo Gazten Azoka eta beste hainbat ekintzen berri eman dugu apirilaren bukaeratik maiatzaren hasierara arte.
- Apirila, uztaila eta abuztuko hilabetetan zehar Goierriko bideoa emitituko da Diario Vasco egunkariko webgunean eta 400.000 inpresio sartuko dira guztira denbora epe horretan elkarrizketa desberdinak egiteaz gain.
- Apirila, maiatza eta ekaina guztian zehar Goierriko spota ikusgai egongo da Donostiako turismo bulegoko telebista eta pantaila guztietan.
- Hilabeteetan zehar, Euskal Herriko Trail Estazioko kideekin hainbat bilera izan ditugu Euroeskualdeari eskatu behar diogun dirulaguntza baten inguruan.

MAIATZA

- 4tik 5era, Idiazabalgo Gazta Azoka dela eta, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako agintariekin egoteko aukera baliatu dugu Goierriko proiektu turistikoaren bilakaeraren inguruan hitz egiteko.

- 10etik 12ra BEC-eko Expovacaciones turismoko azokan parte hartu dugu; 25. aldiz aurkezten ziren gure produktuak Bizkaian eta harrera ezin hobea eduki dugu.
- 11an Europako Bide Berdeen eguna ospatu dugu Mutiloa-Ormaiztegi Bide Berdean zehar: ekintza honen antolakuntzan parte hartu dugu eta Bide Berdeen Fundazioarekin ere harremanetan egon gara, beraien prentsa oharrean Goierriko ekimen hau ere sartu delarik.
- 16an Zegama-Aizkorri maratoiaren aurkezpenerako prentsaurrekoan parte hartu dugu Foru Aldundian.
- 24tik 26ra Zegama-Aizkorri maratoia eta kilometro bertikala ospatu dira eta maratoiaz baliatu gara Basque Highlands marka turistikoa promozionatzeko garaian, Estatuko kate desberdinetako hainbat informatiboetan azaltzeaz gain. Aurten, Goitur-en aportazioa tarteko eta hirugarren aldiz, zuzenean bota da proba TVE-ko Teledeporte kanalean, Katalunia-ko TV3 telebistan, ETB1-en, Golden Trail World Series-eko Youtube kanalean, Salomon-eko telebistan eta sare sozialen bidez: tartean, Goierriko bideoa eta publizitatea emititu da eta hemen ere elkarrizketa bat egin digute Estatu osoko eta nazioarteko telebistentzat.
- European Best Destinations Erakundeak, Europear Komisioko Turismoko webgune ofizialean, Goierri promozionatzen du aurten Europako lehen 10 destino turistikoen artean senderismoko atalean: Goierriekin batera Finlandia, Kroazia, Belgika, Eslovenia, Errumania, Portugal eta Italiako beste destino batzuk daude; Estatuan, Goierri dago bakarrik. Turismo jasangarriaren atalean ere 2016. urtetik aurrera azaltzen gara 2015. urtean lortutako EDEN sariari esker; sekulako promozioa da honako hau, batez ere Europako bidai agentzia eta errezeptiboen aurrean.
- Hilabete honetan zehar Udalerrri desberdinetako turismoko komisio eta bileretan parte hartu dugu, eta turismo arloan negozioak ireki nahi dituzten ekintzaileekin ere elkartu gara.
- Maiatzean zehar ere, Guatemalako Huehuetenango Probintziako Fundación Yaman Kutx eta Guatemala osoko Fundación Pro Verde entitateekin harremanetan egon gara Europako Batzordera eskatu behar duten epe luzerako egitasmo baterako subentzioa lortzeko bidean. Aurrera egitekotan, Goitur egitasmo honetako partaide izango da.

EKAINA

- 2an Donostian ospatu den TBEX Europe Kongresura etorri diren Amerika eta Europako blogarien bisita jaso dugu Goierriin; turismo bidaietan adituak diren blogariei Goierriko hainbat produktu turistiko erakutsi dizkiegu.
- 3tik 5era Trail aldizkariko kazetari bat etorri da Goierriira: eskualdeko naturarekin loturiko errekurtsio eta produktu turistikoari buruzko erreportaje bat argitaratuko dugu aipaturiko aldizkarian.
- 7an, Euroeskualdeak eskatuta, Mugaz gaindiko Turismo Topaketan parte hartu dugu Iruñan; bertan, eskualdeko praktika on bezala, Idiazabal Gaztaren inguruan landu ditugun ekimen desberdinak azaldu ditugu Iparralde eta Nafarroako beste bi eskualdeekin batera.
- 10ean Gipuzkoako gida turistiko berriaren aurkezpenean parte hartu dugu, Foru Aldundiak Zumaian antolaturiko prentsaurrekoan.
- 11tik 12ra aldizkari desberdinetako kazetariak etorri dira Madrildik eta Gipuzkoatik Goierri bisitatzera.
- 13an Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu duen Gipuzkoarentzako bide orri estrategikoaren aurkezpenean parte hartu dugu Chillida Lekun.
- 13an baita ere eskualdeko turismo bulegoen mahaia bildu da uda turistikoaz hitz egiteko asmoz: museoen ordutegiak, gaztandegietara bisitak, datuen bilketa eta beste hainbat gai aztertu dira.
- 14ean, Goierri Valley-ko urteko Batzar Orokorrean parte hartu dugu, elkarte honetako bazkide garen heinean.
- 15ean Noticias taldeko Deia, Diario de Noticias de Navarra, Diario de Noticias de Gipuzkoa eta Diario de Noticias de Alava egunkarietako oportetarako gehigarrian erreportajeak argitaratu ditugu eta online edizioetan ere erreportaje hauek 15 egunetan zehar egon dira ikusgai Goierriko bideoarekin batera.
- 18an formazio bat eskaini dugu Gipuzkoako alojamentuentzat: aurkezpen baten bidez Goierriko produktu turistiko guztien berri eman diegu alojamentuetako harrera zerbitzua eskaintzen dutenei.

- 20ean Kataluniako Luxury Traveling aldizkarian Goierriko erreportaje zabal bat argitaratu dugu.
- 24ean Euskal Fondoa erakundearekin bildu gara, El Salvador-eko Sonsonate Departamentuko Los Izalcos eskualdeko turismoko egitasmo turistiko berrian laguntzeko helburuarekin.
- Tour Magazine editorialak argitaratzen dituen Tour Magazine Gipuzkoa, Tour Magazine Bizkaia, Tour Magazine Araba, Tour Magazine Navarra eta Tour Magazine Rioja-ko udako aldizkari guztietan Goierriko promozioa egin dugu.
- Maiatza eta ekainean zehar Adimen Artifizialari buruzko ikastaro batean parte hartu dugu: online eta presentzialak izan dira ikasgaiak eta guri egokitutako tutoritza bat ere izan dugu.
- Ekainean zehar ere, Guatemalako Huehuetenango Probintziako Fundación Yaman Kutx eta Guatemala osoko Fundación Pro Verde entitateekin harremanetan jarraitu dugu Europako Batzordera eskatu duten epe luzerako egitasmo baterako subentzioa lortzeko bigarren fasea prestatzen. Uztailean ere lan honekin jarraituko dugu proposamen eskaera landu eta erabat osatu asmoz.

UZTAILA

- 3an Donostiako turismo bulegoetan, udaran egongo diren informatzaile guztiekin bilera bat antolatu dugu: bertan, Goierriko produktu turistiko guztiak aurkeztu dizkiegu gure eskualdeko informazio hobea eskaini dezaten.
- 4ean Foru Aldundiak SEGITTUR-ekin batera antolaturiko jardunaldi batean parte hartu dugu hizlari bezala; Goierri eskualdea, HTA programako Estatuko lehen plan pilotua izanik, programa honen bilakaera nolakoa izan den aurkeztu dugu. Ondoren, Foru Aldundiko Turismo Diputatua, Turismo Zuzendaria eta SEGITTUR-eko Presidentearekin biltzeko aukera izan dugu.
- 4ean ere Ehunmilak proba aurkezteko prentsaurrekoan parte hartu dugu Beasaingo Igartza jauregian.
- 5ean eskualdeko produktu turistikoak promozionatzeko garatu dugun ekimen bat aurkeztu dugu Segura Irratiaren eskutik.

- 8an Euskal Fondoa erakundearekin bildu gara berriro ere, El Salvador-eko Sonsonate Departamentuko Los Izalcos eskualdeko turismoko egitasmo turistiko berrian gure partaidetza aztertu eta baieztatu asmoz.
- 10ean, Goierriko Hitzan, Ehunmilak-i buruz atera duen gehigarrian, eskualdeari buruzko publizitatea sartu dugu bertan.
- 11an SEGITTUR-en ekimenez sortu den Estatuko kirol turismoko mahaiko bileran parte hartu dugu.
- 12tik 14ra Ehunmilak proba ospatu da; lasterketak iraun duen egunetan, Goierriko mapa turistiko guztiak mahaian egon dira.
- 18an Basque Destination errezeptiboarekin bildu gara, produktu turistiko berriak ezagutu eta Goierri eskualdea ardatz duten pakete turistikoak gainbegiratzeko asmoarekin.

ABUZTUA

- Hilabete zehar erakunde desberdinekin elkartu gara udazkeneko eta datorren urteko promozio turistikorako ekintzak adosteko, datorren urteko aurrekontu eta diru laguntzen berri izan eta gure egitasmoa beraien plan estrategiko berriekin nola lerrokatu aztertzeko: Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Basquetour, Donostia-San Sebastián Turismo eta Bilbao Turismo.
- Abuztuan zehar elkarrizketa ugari egin ditugu irrati eta telebista desberdinekin Goierri eskualdea aurkeztuz, eta egunkari askotan atera da Goierriko informazioa.
- Era berean, abuztuan ere, bazkideen kezka eta arazoak konpondu ditugu (alojamendu eta zerbitzu turistikoak batez ere), material turistiko eskatutako leku guztietara bidali dugu eta egunero egunero informazio turistikoa eskaini dugu telefonoaren bidez.

IRAILA

- 9tik 11ra Erresuma Batuko turismoko Bradt gidaren idazlea den Murray Stewart etorri da Goierriera: Idiazabal gazta eta artzantzari buruzko erreportaje zabal bat egitera etorri da.
- 11an, Ordiziako Euskal Jaiak direla eta, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Landa Garapeneko eta Foru Aldundiko Turismo Saileko agintariekin egoteko eta biltzeko aukera baliatu dugu.
- 12an SEGITTUR-ekin bildu gara Goierri eskualdeko egoerari buru hitz egiteko Helmuga Turistiko Adimenduna proiektua dela eta: aurten diagnostikoa berriz egin behar dugu eta dagoeneko bidali da eskatutako informazio guztia.
- 13an Gipuzkoako Turismo Mahaia bildu da ondorengo gai hauek jorrazteko: udako balantzea, promozio turistikoa, SIT behatokia, plan estrategiko berria eta tasa turistikoa.
- 17an formazio bat eskaini dugu webinar baten bitartez Gipuzkoako DIT Gestión enpresarekin elkartuta dauden penintsula guztiko (Espainia eta Portugal) ia 1.000 bidaia agentzientzat: aurkezpen baten bidez Goierriko produktu turistiko guztien berri eman diegu, Euskadiko pakete turistiko berrietan Goierri sar dezaten.
- 18tik eta urriak 31 arte Goierri promozionatu dugu online formatoan Expressive enpresa kontratatu ondoren; kanpaina digitala jarri dugu martxan hiru estrategia erabiliz: sare sozialak, Youtube eta Programatika; Araba eta Bizkaia lurraldeetako 35 eta 55 urte arteko pertsonengana heldu da Goierriko informazioa formatu desberdinen bidez.
- 20tik 22ra Segovia-ko La Granja herrian ospatu den NATURCYL azokan Goierriko natura eta ekoturismoari buruzko informazioa banatu da Euskadiko stand-aren barruan.
- 20tik 22ra baita ere Girona-n ospatu den Sea Otter Europe azokan Goierriko natura eta zikloturismoari buruzko informazioa banatu da Euskadiko stand-aren barruan.
- 23an eskualde barruan antolatu den Goierri Barnetik egitasmoko bileran parte hartu dugu.

- 25ean HAZI-ko ekintzailatza eta lurralde orekako arduradunarekin bildu gara eskualdean sor daitezkeen proiektuak aztertu eta gaur egun abian dauden hainbat ekimenei buruz aritzeko.
- 27an, Goiberriko kontrazalean, eskualdeko turismoari buruzko informazioa sartu dugu.
- Iraila bukaeran, Gasteiz Hoy online aldizkariaren eskutik, Goierriko erreportajeak sartu ditugu urriko zubia eta aste bukaeratako bisitarien mugimenduak kontutan izanda.
- Irailean zehar, Kode Etikoaren barruan ditugun 17 enpresekin lanean izan gara programa honetako partehartzeak eskatzen dituen atalak lantzen.
- Hilabete honetan zehar Udalerrri desberdinetako turismoko komisio eta bileretan parte hartu dugu, eta turismo arloan negozioak ireki nahi dituzten ekintzaileekin ere elkartu gara.

URRIA

- 3an eskualdeko Turismo Mahaia bildu da udako balorazioa egin, udazkeneko promozio turistikoekin berri eman eta datorren urteko egitasmoa aurkezteko helburuarekin beste gai batzuen artean.
- 7an Euskal Fondoa erakundearen bitartez, El Salvador-eko Sonsonate Departamentuko Los Izalcos eskualdeko turismoko egitasmo turistiko berria dela eta, hitzaldi bat eskaini diegu bertako agintari eta teknikoei online formatoan El Salvador-eko turismoko plangintza orokorra ardatz hartuta.
- 9an, San Sebastian Gastronomika azoka bitarteko, Turismoko Diputatuarekin eta Turismoko Zuzendari berriarekin biltzeko aukera izan dugu.
- 10ean Foru Aldundiko Kultura Sailarekin eta Aramako Udalarekin bildu gara herrian zabaldu nahi duten jatetxe eta hotel berriaren egitura aztertzeko helburuarekin.
- 15ean Sakana, Tolosaldea eta Baigorriko arduradunekin bildu gara Hendaian, Euskal Herriko Trail Estazioaren proiektu berria garatzen hasteko Euroeskualdeko subentzia lortu ondoren.

- 16an Turismoko Estatu Idazkaritzak, Foru Aldundiak eta El Diario Vasco-k antolatu duten digitalizazioari buruzko jardunaldi batean parte hartu dugu: bertan, eskualdeko Helmuga Turistiko Adimenduna egitasmo pilotua azaldu dugu. Jardunaldiaren ondoren, Foru Aldundiko Turismoko Zuzendari berriarekin bildu gara.
- 19an Hungariako Peter Szucs blogaria etorri da Goierri eskualdeko hainbat produktu turistiko ezagutzera.
- 18tik 20ra Seu d'Urgell-eko (Lleida) azokan egon gara: Kataluniatik kanpoko stand bakarra izan gara eta sekulako arrakasta izan dugu beste behin ere, bai jende kopuruaren aldetik, baita prentsaren aldetik ere.
- 22an, Deustuko Unibertsitatearen eskutik COST Elkartearen sartu gara "European Cooperation in Science & Technology": aurrerantzean, turismo jasangarriaren alorrean aurrera eramango dituzten zenbait ekimenetan parte hartu dugu.
- 23an Japoniako 4 bidai agentzia garrantzitsu etorri dira Goierriko produktu gastronomikoak ezagutzera: Jalpak Co, Skycrow Travel, Purpose Japan Co eta Travel JP.
- 24ean Foru Aldundiko Turismoko Zuzendariarekin bildu gara Goitur-eko datorren urteko egitasmoa eta aurrekontuak aurkezteko helburuaz gain, bi entitateen arteko lankidetzaren areagotzeko.
- Hilabete honetan ere Udalerrri desberdinetako turismoko komisio eta bilerekin parte hartu dugu.

AZAROA

- 4ean eskualde barruan antolatu den Goierri Barnetik egitasmoko bilera parte hartu dugu.
- 5etik 7ra Goierriko informazio turistikoa Londres-eko WTM azoka turistikoan egon da, bai Euskadiko stand-ean, baita bertan presentzia izan duten bidai agentzien bidez ere.

- 7an Vic-en, Osona eskualdeak azaroan zehar antolatu duen senderismoko festibalaren barruan, "La evolución de los eventos deportivos y el impacto en el territorio" jardunaldia ospatu da, eta bertan Goierriko adibidea azaldu dugu eta eskualdea promozionatu dugu bide batez.
- 8tik 10era Vic-eko Fira de la Muntanya azokan parte hartu dugu laugarren aldiz eta sekulako arrakasta izan dugu jendearen interesaren aldetik.
- 15etik 17ra Valladolid-en ospatu den INTUR azokan egon gara Gipuzkoako stand-aren barruan; gerturatutako jende kopurua eta jendearen interesa oso handia izan da beste behin ere.
- 19an Sakana, Tolosaldea eta Baigorriko eskualdeekin bildu gara Euskal Herriko Trail Estazio berriko proiektuaren garapenari hasiera emateko helburuarekin.
- 19tik 21era arte Goierriko informazio turistikoa Bartzelonako IBTM azoka turistikoan egon da MICE merkatuari zuzenduta.
- 21ean Basquetour-ekin bildu gara 2025ean martxan jarriko den Enpresa Turistiko Adimendunaren proiektuaren nondik norakoak azaltzeko.
- 26an, eskualde barruan antolatu den Goierri Barnetik egitasmoaren barruan, landa garapeneko batzordearen lehen bileran parte hartu dugu; urtea amaitu baino lehen ere, beste saio batzuetan parte hartuko dugu.
- 26an baita ere, eskualdeko Udal agintarien aurrean aurkeztu ditugu datorren urteko egitasmoa eta aurrekontuak.
- 27an HAZI-ko ekintzailatza eta lurralde orekako arduradunarekin bildu gara, gaur egun abian dauden hainbat ekimenei buruz aritzeko.
- 28an turismo bulego eta interpretazio zentroen azpisektore mahaia bildu da datorren martxoan egingo dugun museoen hilabetea antolatzeko asmoz.
- 29an SEGITTUR-ek martxan jarritako kirol turismoaren mahaiaren bileran parte hartu dugu.

ABENDUA

- 3an Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu duen Turismoko Galan parte hartu dugu Eibarren; bertan, eta Goitur-en ekimenez, Gr 283 Idiazabal Gaztaren Ibilbideak jaso du sarietako bat.
- 4ean eskualdeko sagardotegiekin harremanetan jarri gara urtarrileko txotx irekieraren inguruan jarduteko.
- 10ean Donostia Turismok antolaturiko urte amaierako ekitaldian parte hartu dugu.
- 11an Eusko Jaurlaritzak antolatu duen Turismoko Galan parte hartu dugu Bilbon.
- 18an eta 19an Basquetour-ekin batera datorren urtean garatuko dugun ETA programari (Enpresa Turistiko Adimenduna) hasera eman diogu Goierri, pilotu izango diren bi enpresetako diagnostikoak eginez: 18an Zerainen izan gara eta 19an Ordizian.
- Abenduan zehar ere, Basquetour, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako agintari politikoekin elkartu gara, Goitur-ek datorren urterako duen egitasmoa aurkeztu eta beraien subentzioen berri eduki ahal izateko, elkarlanean egingo ditugun promozioak adostearekin batera.